

# LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</li> </ul>	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

## 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## BETI BIHARKO UZTEN DEN EZTABAIDA

Eta kulturarekin, zer egin? Horra historikoki ezkerari buruko minak sortu dizkion galdera handia. Marxek iraultza azpiegituratik etorriko dela zioenez, eta kultura gainegituran kokatu zuenez, komunismo klasikoak bigarren mailako kontutzat jo izan du. Gerora posmarxismotik indar eraldatzaile handia aitortu zaion arren, irudi luke ezkerreko mugimenduetan aski zokoratuta jarraitzen dutela kultur ereduari buruzko eztabaidek, eta, jorratzen diren apurretan, azaleko kluxe batzuk errepikatu eta al bait azkarren hurrengo gaira igarotzeko izan ohi dela. Auzi horretaz mintzatu dira Beñat Sarasola eta Ainhoa Güemes, nor bere esparrutik: kultur kritikaren planotik aritu da lehena, nazio-askapenerako mugimendutik bigarrena.

Kultur ereduari buruzko eztabaidak alderdi politikoaren eta herri-mugimenduen agendatik kanpo daude, Sarasolaren ustez. Gai horien inguruko «sostengu ideologiko falta» sumatzen du. Güemesek, berriz, uste du nazio-askapenerako mugimenduak sorkuntza izugarria erakutsi duela. «Etengabe sortu ditugu herri bezala osatzen gaituzten elementuak. Gure arazoa ez da jende sortzailea falta zaigula, estatu mailako gerramakinaren aurka ari garela baizik».

Ezkerrak formula jakin bat erabiltzen du kultur gaietan galdurik sentitzen denean, Sarasolaren irudiko: beste esparru batzuetan aurrerakoi eta iraultzaile diren ereduak kulturaren bere horretan aplikatzea. «Horrela, ordea, eredu kontserbadore bat sortzeko arriskua dago, kulturak eta arteak esparru autonomo bat osatzen dutelako». Güemesek, berriz, uste du sortzaileen jarduna kultur balioek eta egoera politikoak baldintzatzen dutela. «Ikonokraziak sakonki eragiten digu. Ez da kasualitatea ETAk armak entregatu zituenean Picassoren *Gernika* edukitzea atzean. Gure iruditeria indartsua estrategia politikoaren eta adierazpen artistikoen nahasketa da».

Sarri hitz egiten da kultur eredu *herritar eta parte-hartzaileaz*. Bi hitz horiek tranpatiak izan daitezkeela dio Sarasolak. «Kultura herritarra eta parte-hartzailea izan daiteke, adibidez, publiko gehien

mugitzen duen hura, eta, aldiz, minoritarioa dena ez da herritarra eta parte-hartzailea. Hori logika perbertsoa da, kulturalki erabat kontserbadorea. Eraldaketa kulturala eta artistikoa ia beti esparru minoritarioetan sortzen da». Hainbat kulturgile batu dituen *Sortuko dira besteak* egitasmoa jarri du adibide gisa. «Kursaala euskal taldeekin bete zela eta sekulako arrakasta balitz bezala saldu zuten. Hori lortzeak, izatekotan, ekoizpen aldetik izango du meritua. Baina, artistikoki, ekimen horrek hutsaren hurrengo balio du. Hura entzutera joan ziren zenbat lagunek sortuko du beste zerbait kultur adierazpideren batean? Inork ere ez».

«Arte ona normalean esparru minoritarioetan sortzen dela aldarrikatzen duzunean, elitista izatea leporatzen dizute», dio Sarasolak. «Arteak zalantzan jarri behar dizkizu zure ideiak, ustezko egiak eta abarrak. Eta saiaketa horiek minoritarioak izaten dira, jendearentzat ez direlako erosoak. Zer garen, zer izan garen jakiteak ematen dio heldulekua jendeari, eta hori lortzen du museoetan, testuliburuetan...; oro har, artea ondare bihurtzen denean. Baina benetako arteak, sortzen den unean, statu quoa pitzatzea lortu behar du».

Statu quoa honela deskribatzen du Güemesek: «Makinaria kapitalista bere burua birsortzeko gai da, baina ez aniztasunaren eta sorkuntzaren iturri agorrekin modura, gabeziak seriean ekoizteko modu gisara baizik. Euskal Herriak asimilatuta gelditu nahi ez badu, erronka bati egin behar dio aurre: artegintzak eta kultur adierazpenek masa-ikusgizunaren tresnetatik urrundu behar dute».

Funtsean, oinarrizko desadostasun bat daukate Güemesek eta Sarasolak. Aurrenekoaren ustean, «Artea afirmatiboa da bere esentzian: pertsona eta komunitate gisara autoafirmatzen gaitu, eta gure proiektuak luzaro iraun dezan lortzen du». Bigarrenak, aldiz, uste du statu quoa zalantzan jartzen ez duen artea txarra dela: «Arte afirmatiboak justu kontrakoa lortzen du: deserosoa egin beharrean, hartzaileari halako arindu bat sortzea».

Güemesek ez du uste ezkerrek arazorik duenik arte afirmatiboarekin: «Egia da sorkuntza-indarrak

agortuxea dirudiela maiz, batez ere mezu eta lelo batzuk errepikatzearen errepikatzeaz. Baina uste dut errealitate sozio-historikoa dela gaitasun hori higitzen duena». Hala ere, onartzen du garaiotan artearen arketipoak ez

direla bereziki onak politikarako, kultura jakin baten arketiporik bikainenak izanik ere.

**MATXAIN, Kepa. Argia, 2015eko azaroaren 1a. Egokitua.**

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 1. Zer dio testuak ezkerren eta kulturaren arteko harremanari buruz?

- a) Gizarte-egiturak traba direla ezkerrek kultur iraultza bultzatzen dezan.
- b) Historian zehar ezkerrek ez duela, oro har, kultura lehenetsi.
- c) Kulturaren indar eraldatzailea gorabehera, ezkerrekin nekez uztar litekeela kulturarekin.

### 2. Zer iritzi dute Sarasolak eta Güemesek?

- a) Politika kultur sorkuntzatik urrun ikusten dute biek.
- b) Nork bere esparruan, biek uste dute badagoela zer hobetua politikatik.
- c) Sarasolak ez bezala, kulturak babes politiko handiagoa behar duela uste du Güemesek.

### 3. Zer uste du Sarasolak politikak kultur gaitan duen eraginaz?

- a) Ezkerrek bide desegokiak baliatzen dituela kulturaren kutsu politikoa saihesteko.
- b) Kultura eta artea ez direla modu autonomoan tratatzen.
- c) Kultura eta artea esparru beregaintzat hartzen direla politikan.

### 4. Sarasolaren ustez, zergatik dira tranpantiak *herritar* eta *parte-hartzaile* terminoak?

- a) Kultur balioa ezin delako zenbakitan neurtu.
- b) Publiko gutxi mugitzen duena ezin delako herritarra eta parte-hartzailea izan.
- c) Ezkerrek eredu minoritarioak lehenestea ironikoa litzatekeelako.

### 5. Zer esaten da *Sortuko dira besteak egitasmoaz*?

- a) Alderdi artistikotik, ekimena ez zela oso arrakastatsua izan.
- b) Hango entzuleak ez direnez sortzaile bihurtuko, egitasmoak ez zuela meriturik izan.
- c) Kurasaala bete izanik ez duela ekimenaren kultur balioa bermatzen.

### 6. Zer ezaugarri izan behar ditu arte egiazkoak, Sarasolaren iritziz?

- a) Zalantza-pizgarri eta autoafirmaziorako tresna izan behar du.
- b) Minoritarioa eta jendearentzat deserosoa izan behar du.
- c) Gizartean jakintzat jotzen diren aurreiritziak astindu behar ditu.

### 7. Zer dio Güemesek *statu quoa dela eta*?

- a) Kapitalismoa oztopo dela Euskal Herriak kultur eredu propioak izan ditzan.
- b) Kapitalismoak agerian uzten duela zer-nolako kultur gabeziak ditugun.
- c) Erronka handia dela kultur adierazpenek eredu komertzialen kateak haustea.

### 8. Zertan datza Sarasolaren eta Güemesen arteko desadostasuna?

- a) Artearen autoafirmatzeko gaitasunean dute desadostasuna.
- b) Arte hedatzeko moduan dute desadostasuna.
- c) Arteak *statu quoa* izan beharko lukeen eraginean dute desadostasuna.

## 2. ariketa

### Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

## GIZAKIEN ETA ROBOTEN GIZARTE BATERANTZ

Robotikan eta adimen artifizialean azken urteetan egiten ari diren aurrerapenekin, gero eta handiagoa da makinaren autonomia eta adimena. **9**

Duela 65 urte, Isaac Asimov idazleak robotikarako hiru lege aurkeztu zituen Runaround ipuinean: 1) Robotak ez dio gizakiari kalte egingo, eta saihestuko du gizakia kaltetua izatea; 2) Robotak gizakiak emandako aginduak beteko ditu, lehenengo legearen aurka doanean ezik; eta 3) Robotak bere burua babestuko du, hori ez badao lehenengo eta bigarren legeen aurka.

Pertsonak eta robotak bizikidetzan irudikatu zituen Asimovek bere zientzia-fikzioko kontakizunetan, eta bizikidetzara horretarako beharrezko ikusi zuen robotak lege horien arabera programatzea. **10**

“Iraultza bat gertatzen ari dela ukalezina da”, dio Elena Lazkano Ortega EHUko Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala saileko ikertzaileak. **11**. Bat dator Gorka Azkune Galparsoro, adimen artifizialean ikertzailea Deustotech-Deustuko Unibertsitatean: “Adimen artifizialaren ikuspuntutik salto handi bat gertatu da, urteetan ikusi ez den moduko saltoa. Oso zaila da aurreikustea zenbateraino aldatuko diren gauzak, baina nik uste dut, hemendik gutxira, eragin handia izango duela gure bizimoduan”.

**12**. Azkuneraren ustez, kasu batzuetan dagoeneko beharrezkoak dira legediak, baina legedietan gehiegi aurreratzeari arriskua ere ikusten dio.

Joan den otsailean, Europako Parlamentuak eskaera egin zion Europako Batzordeari robotikarako eta adimen artifizialerako legeak proposatzeko. Britainia Handian, berriz, BSI Estandar Erakunde Britainiarrak iaz atera zituen

roboten diseinu etikorako arauak. Asimoven legeen eguneraketa bat balitz bezala, hiru puntu orokor azpimarratu dituzte arau horietan: 1) Robotak ez dira diseinatu behar bakarrik edo nagusiki gizakiak hiltzeko; 2) Roboten ekintzen arduradunak gizakiak dira, ez robotak; eta 3) Posible izan behar du robot bakoitzaren eta haren ekintzen arduraduna zein den jakitea.

**13**. Eta hori horrela den heinean, geu garelako arduradunak dio.

Azkunek dioenez, ordea, gerta liteke beti hain garbi ez egotea. “Askotan pentsatzen da robotak programatu egiten direla gauza bat egiteko. Baina gaur egun robotak ikasteko gai dira, eta etorkizunean are gehiago, ziur aski. Eta ikasteko gaitasunak erabakitzeke autonomia ekar dezake. **14**

Dena den, adimen artifizialaren ikasteko gaitasuna mugatua da oraindik. “Momentuz datuak irensten dituzte, datu horietan dagoena ikasi, eta orokortzeko gaitasun apur bat baino ez dute” zehaztu du Lazkanok. “Horrela izanda, ematen zaizkien datuak etikoak badira, irteerak ere etikoak izango dira”. Baina, jakina, ematen zaizkien datuak etikoak izatea ere ez da beti erraza izango; adibidez, Interneteko datuak erabiltzean. Horren erakusgarri Microsoften Tay txatbotarekin gertatu zena: Twitterren jarri eta 24 orduan kendu behar izan zuten komentario arrazistak, sexistak, naziak eta abar egiten hasi zelako. Jakina, twitterreko elkarrizketetatik ikasi zuen.

**15**. Izan ere, ikasteko gaitasuna handitu ahala, gauzak alda litezke. “Googleren Deep Mind ari da dagoeneko adimen orokor artifizialaz hizketan”. Adimen orokor artifizial bat gai izango litzateke bere kasa erabakiak hartzeko. “Gaur egun, adimen artifiziala nahiko kontrolatuta dago, datuen arabera eta erabiltzen duzun ikasketa-teknikaren arabera; baina aurrera

goazen neurrian, eta adimen hauek erabakitzeo askatasun gehiago duten neurrian, ez da hain erraza izango ikasi dezaketena kontrolatzea”.

Baina hori, gertatzekotan ere, urrun dagoela argitu du Azkunek: “Azken urteetan aurrerapen handiak izan dira, eta etorkizunera proiektatzen baditugu nahiko mundu desberdina azaldu liteke, baina oraindik ez gaude hain aurreratuta

zentzu horretan. **16**. Egia da, justu aurten adimen orokorraren inguruan aurrerapen txiki batzuk egin direla. Baina, oraindik ere, oso oinarrizko ikerkuntzan ari gara hor, eta iritsiko da agian, baina ez dakigu”.

**ETXEBESTE, Egoitz. Elhuyar, 2017ko ekaina. Egokitua.**

## 2. ariketa. Txertatu testu zatia

**OHARRA:** Aukeran ematen zaizkizun testu zatiotako bat sobera dago.

- A.** Robotak zenbat eta humanoide itxura handiagoa, orduan eta onargarriagoak izango direla pentsa daiteke. Eta hala da neurri bateraino, baina kontuz!
- B.** Orduan, robot horiek beren kasa ikasten doazen neurrian, zein da ikasten dutenaren arduraduna? Azken batean, gugandik ikasten badute, gu izango gara arduradunak, baina ardura hori gizartean oso diluituta gera daiteke”.
- C.** Hala ere, ez du hain argi iraultza horrek zer abiadura hartuko duen: “Batuetan iruditzen zait bertan dagoela, gainera datorkigula, eta beste batuetan aurrerapenak ikaragarri motel gertatzen direla”.
- D.** “Mundu irekiaren arazoa esaten zaio horri” dio Azkunek. “Mundua irekitzen badiegu adimen artifizialei eta uzten badiegu datu guztiak hartzen arazoak sortu litezke”.
- E.** Pertsonen segurtasunaz gain, arduretan jarri dute fokua. Bat dator horretan Lazkano: “Robotak guk diseinatzen ditugu, eta roboten ekintzak ere bai, momentuz”.
- F.** Dagoeneko, ordea, ez da hain fikziozkoa mundu hori: hor daude ibilgailu autonomoak, dronak, adinduei eta ezinduei laguntzeko robotak, industrian sartzen ari diren guztiak, eta baita ikasteko gai diren makinak ere.
- G.** Oraindik espezializazio-mailan gaude: baditugu adimen txiki batzuk gauza konkretuak egiten oso onak direnak, baina gizakiak duen orokortasun hori ez da gertu ikusten.
- H.** Egoera horren aurrean, Asimoven legeak baino zerbait gehiago beharko da, eta hainbat herrialdetan, AEBn, Txinan, Japonian eta Europar Batasunean, adibidez, hasiak dira gaia jorratzen.
- I.** Eta, horrekin batera, handitzen ari da makina horien etika bermatzeko beharra ere. Horretarako araudiak lantzen eta proposatzen ari dira hainbat gobernu eta erakunde.

### ■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

<b>Hutsuneak</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>16</b>
<b>Testu zatiak</b>								

<b>Soberakoa</b>	
------------------	--

**OHARRA:** Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

## 3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## PROBINTZIAKERIA

Hiri handian bizi ginenean, bagenuen beste nonbait ezezagunera aldentzeko irrika, lehenago sekula bizi izan gabeko lekuren batean finkatzeko itxurakeria. Noizean behin datorkigu gogora hiriaz kanpoko bizitzaren xarma, programatutako akats tekniko edo ingurune soildu baten dekadentzia balitz bezala, edo desira iluneko atrakzioa. Globalizatutako *matrix*aren barnean probintziakeria ez dago aldentutako herrixkan, eta ez da ezaugarri geografikoa ere, berezko baldintza biologiko bat baizik, akats tekniko edo puntu itsua metropoliaren bizitzaren baitan.

Berehala datorkigu 1990eko hamarkadaren nostalgia: prekaritatearen ondorengo manifestazio jendetsuen janzkera eta gogoak markatzen duen bizitza-estilo zikliko noizbehinkakoa; *grunge* estetika eta arropa elastikoak; eta bulkada desberdin baten sentipena, «bertokoagoa», esate baterako. «Gentrifikazioa» zer zen ez genekien garai hura, eta ontzat ematen genituen jardun kulturalen kapitalizazio-saiakerak, gauza berritzailea berez horixe zelakoan, masa geldoaren aurretik joatea, nolabait. Giro artistikoak, liburu-denda berriak, ziberkafeak eta bestelako *boutique*ak ingurunearen parte ziren.

Gaur egun, kontakizun ohikoa bihurtu da gentrifikazioarena. Sohon eta abarretan abiatu omen zen laurogeiko hamarkadan eta, gaur egun, auzoko zokoetara ere iritsi da Channel lurrin-usaina, argazki-estudioa moldatu dute alde industrialean, *running*-zirkuituak han-hemenka dakusaguz eta gaur egungo artea herri-aldizkarian dager. 1999ak eraman zituen ustezko erresistentziaren azken hasperenak.

New Yorkera joan ginen. Esperientzia urbanoaren lilura zen, benetan, hura: kaleetako balizko arriskua, club ilunetako kakofonia, jende arrotzaren arteko elkarketa amaigabea, edozer posible zelako sentipena, eta ezustekoa ez zela izango ezohikoa. Uste berezi hartan, artean posible zen berezko ahalmenaren fantasiari eustea, eguneroko ibiliaren narratiban eskura zirelako esperientzia zinematikoaren ihesbideak.

Etorri ziren lege murriztaileen kanpaina oldarkorrak, itzaliz joan zen hiriaren txinparta.

Orain, *app* bitartez gertatzen dira jendarte-gurutzaketa edo *cruising*-saiakera zuzenak, esango du norbaitek.

Hasiera bateko irudi korporatibo freskoa, merkaturatze-estrategia soila besterik ez zela ohartu arte, edo marka bitartezko pribatizazio-joerak beranduago. *Disney class* turistak. Etxetik irten gabe ezagunak ditugun denda-kateak eta ikurrak. Gorputz esponsorizatuak gure espazio intimoaren jabe egiten direnean, apenas egin diezaieke aurre gure gorputz ñimiñoak. Kudeaketa korporatiboarentzat ez gara inor, finean, masa kontsumitzailea izan ezik. Eta horrelakorik nahi ez badugu, aurkituko ditu kontsumitzeko prest diren beste gorputz batzuk.

Probintziakeria edo herrikoitasuna, gutxiespeneko zeinu izatetik balio positiboak bereganatzera igaro da, zera hori gaindituz itxuraz, testuinguru urbano alienatuen kontrapuntu gisa, agian. Esnobismo berriak asmatzeko modu bat besterik ez, esperientzia urbanoen psikogeografiak ez direnean gehiago sormenezko eremuak, ez dutenean dagoeneko gaitasunik balizko emergentziak pizteko.

Suburbanizazioa deitu izan zaio. Auzo-komunitateen harremanen suntsiketa, eta estatu polizialaren ezarpena familia-bizitzarako eremu berrietan, «bizitza kalitatearen» izenean, kontsumorako erraztasunak sustatuz. Auzo-azpiegituren eta adierazpen bizien erauzte korporatiboa. Kaleak ez dira «gure kaleak», izenak eta koordinatuak dituzte nabigatzailearen laguntzaz ezinbestean zeharkatzeko.

Izan ere, ez dugu inoiz bezala aldarrikatzen kaleak «gure izatea», nortasun desberdinen eraldaketak babestu eta suspertzea baizik. Abiaduraren zorabioan hiriak bihurtu dira beren periferia, ezabatu dira nortasun kolektiboak, norbanakoaren narratioak gailenduko dira, gorputz desberdinen hizkuntzaren gainean eratuak, hiri orokor eta unibertsalaren aurka.

Segurtasuneko espazioaren itxuraz goxo baina zurrin bihurtu aurretik, hirian zeharreko

noraezarenak bazuen irrikarik, espaloiak oinez zeharkatzearen marruskadura, errotuluak ikurmarka fisiko soilak zirenean artean, kapitalismo likidoaren aparrak gain hartu ez zuenean, antza. Finantzaketaz puztutako subjektibotasuna, gorputzaren mugimendurako espazio gero eta meheagoan. Ekintza zuzenaren denbora azeleratua galduta.

Praktika artistikoak eta kritika instituzionala, finantza-sailek barne-sustapenaren aitzakian hauspotutako aisiazko egitarauan koka genitzakeenean ia. Bankuen *lobby*-espazio fisiko eta birtualak, jendartearekiko erlazio azalekoan jartzeko gailu estetikoak.

**ARANBERRI, Ibon. <berria.eus>, 2016ko otsaila. Egokitua.**

### 3. ariketa. Aukeratu erantzuna

#### 17. Testugilearen ustez, zer da probintziakeria?

- a) Hiri handi eta globalizatueta bizi direnek izan ohi duten sentimendua.
- b) Ezagutzen ez ditugun lekuetan bizitzeko gogoia.
- c) Hiritarrok ez daukagunarekiko sentitzen dugun erakarpina.

#### 18. Zer uste du Aranberrik gentrifikazioaz?

- a) Sohon gertatu zena sustraitu eta zabaldu egin dela mundu osora.
- b) Joera hori, 10 urte eta gerora, indarra galtzen hasi zela.
- c) Adierazpide kultural modernoek, auzo bazterretara zabaldu direnez geroztik, ez dutela lekuri hiriaren erdialdean.

#### 19. Zer dio testugileak New Yorkez?

- a) Gezurra dela teknologia berriek biztanleen harreman mota eraldatu dutela.
- b) Garai batean izan zituen ezaugarri batzuk nabarmen aldatu direla azken urteotan.
- c) Bere izaerari eusten jakin duelako dela hain erakargarria

#### 20. Zer dio Aranberrik kontsumoaz?

- a) Guztiz barneraturik dugula eta inork ez duela ihesbiderik.
- b) Etxe handientzat norbanakoek ez dutela, ez indarrik, ez garrantzirik.
- c) Kontsumoaren iruzurraz oharturik ere, ez dugula aldatzerik taldean aritu gabe.

#### 21. Zer bilakaera izan du probintziakeriak?

- a) Hiritar gehienek sentitzen dute orain, metropoliaren baliabide kulturalak murriztu egin direlako.
- b) Atzo zein gaur intelektual gutxi batzuen pentsamendua da.
- c) Lehen gutxi balioesten zen eta orain hiriak dituen gabeziak estaltzen ditu.

#### 22. Zer da suburbanizazioa?

- a) Pertsonen eta hiriaren arteko harreman-eredu berria dakarren prozesua.
- b) Poliziaren laguntzaz, hustutzen ari diren auzo arriskutsuak biziberritzea.
- c) Betiko auzoetan gunere berezituak sortzeko joera.

**23. Zer ekarri du abiadurak hirietara?**

- a) Auzoetako eragileak, kaleetako protestak eta segurtasuna galtzea.
- b) Garrantzia norbanakoari ematea, eta ez taldeari.
- c) Periferiak asko zabaltzea eta modan jartzea.

**24. Zer dio testugileak duela urte batzuetako hiriaz?**

- a) Beste erritmo bat, eta xarma moduko bat zuela.
- b) Segurtasunik ezaren ondorioz, galduta ibiltzea abentura zela.
- c) Arte-adierazpenak kritikoak izaten zirenez, ez zutela diru-laguntzarik jasotzen.

**25. Zein da artikuluaen ideia orokorra?**

- a) Gentrifikazioak gure hiriburuen eta bertako bizilagunen izaera aldatu du.
- b) Gaur egungo hiri handiak lehengoak baino hotzagoak eta kontsumistagoak dira.
- c) Globalizazioaren ondorioz, hiriek arima galdu dute eta ihesbidea beste nonbait bilatzen dugu.



## Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna
  - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa
  - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

## 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

**Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.

Oharra: **asmatu izenpea** anonimotasuna gordetzeko

**GAIA:** Saileko arduraduna zara eta zure menpeko teknikari baten eskutitza jaso duzu, saileko teknikari guztien izenean idatzitakoa. Eskutitz horretan, lanez gainezka dabiltzala adierazteaz gain, beste langile bat kontratatzeko edo beste lanpostu bat sortzeko premia azaldu dizute.

Zuk, ordea, egoera onarturik ere (osorik edo ez), baduzu argudiorik proposamen hori ez onartzeko. Erantzun jasotako eskutitzari zure ikuspegia azaldu eta beren proposamenari uko egiteko.

**2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako**

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.  
**Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulu**a idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
  - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
  - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
  - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

**TESTU AIPAMENAK****1.****HIPOTEKA BEREZIAK, BEREN PISUAK SALTZEKO**

Banketxeek hipoteka bereziak eskaintzen dituzte etxegabetzeen bidez lortutako pisuak saldu ahal izateko. Alokatzearen kultura baztertu eta higiezin burbuila lehertu aurreko egoerara itzuli nahi dute, etxebizitzak erosteko kulturara. Horretarako, herritarren konfiantza berreskuratu behar dute, krisi urteetan Estatuan 200.000tik gora kaleratze egon baitira.

Krisia hasi aurretik, tasa aldakorreko interes-maila baxuak eskaintzen ziren hipotekak sustatzeko, nahiz eta, Euriborraren igoera zela medio, ordaindu beharrekoa bikoiztu ere egin zitekeen.

Orain, hipotekak leuntzea da estrategia, Euriborraren balioa interes-maila baxuan eskainiz edo etxebizitzaren balioaren % 100aren finantziazioa proposatuz.

Banketxeak pisuaren % 100 ordaintzeak badu bere ifrentzua, ordea: interes gehiago eta, beraz, pisuarengatik gehiago ordaintzea.

**RAMIREZ, Xalba. *Argia*, 2017ko abuztua. Egokitua**

**2.****EGIA OSTEKOA**

Mundua gezurren aurrean babestu dezaketen arma bakarrak kazetaritzak argitara ekarritako egia direla esan du ospe handiko egunkari bateko zuzendariak.

Bat nator hedabideetako arduradunek azaldu duten kezkarakin. Hots, desafio handia jokatzeko dugu guztiok, berri-emaile eta berri-hartzaileok, jokoaren arauak apurtuz gero, galera guztiontzako izango baita. Kontraesana dirudi, baina oraingo aro hau aldi berean izan daiteke ezagutzarena eta desinformazioarena. Inoizko datu-jariorik handiengan murgilduta bizi gara, sekula ez bezala, informazio, iritzi eta gertakari oro geure eskura iristea erraza, merkea eta bizkorra da, baina aldi berean sekula ez da horren modu argiz aitortu manipulazioa, zilegi bihurtzeraino.

Oxford Hiztegiak 2016. urteko hitza «egia-ostekoa» izendatu du, *post-truth* ingelesez, eta trumilka atera gara guztiak egiaren ostekoari izen berririk zertan asmatu ez dagoela gogoratzeko. Zaharra baita oso, egia ez dena izendatzeko hiztegi orok jasota duen berba: gezurra.

**KALTZADA, Pilar. *Berria*. 2017ko otsaila. Egokitua**

3.

**ZORIONTASUN PILULEN ALDE ILUNA**

Eguneroko kontsultan, analgesikoen eta antiinflamatorioen atzetik, psikofarmakoak dira medikamenturik errezetatuena. Gaurko gizartean ez gaude batere sufritzeko prest eta estutasun, itoaldi edo insomnio kasuen aurrean, botiketan bilatzen dugu irtenbidea. Konponbideak, ordea, beste arazo bat sortzen du askotan: menpekotasuna.

Baina, zer diote medikuek psikofarmakoei buruz? Adituen arabera, farmakoena medikuntza sintomatikoa da, hots, sintoma estaltzen du, baina barnean benetan ezer sendatu gabe; partxea jartzea da, gaitza ezkutatzea baino ez. Hala ere, psikofarmako asko eta asko errezetatzen direla aitortu digu Gonzalo Gomez familia-medikuak, patologia asko dagoelako antsietateari, estresari, lanari... lotuta, “eta jendeak uste du gaixo dagoela triste dagoenean”.

GARCIA, Mikel. *Argia*, 2008ko urria.  
Egokitua

4.

**ZEIN DA HEZKUNTZA SISTEMA ONAREN ERREZETA?**

Krisi-garaiko murrizketen ondorioz, herrialde ugarian, irakaskuntza da gehien sufritzen ari den eremuetako bat. Gazte askok ez dute beren bertuteak aztertzeko aukerarik eta beste herrialde batzuetara joatea erabakitzen dute beste edukazio-sistema batzuekin probatzera. Baina, zein da egun hezkuntza-sistematik onena? Adituen arabera Finlandiakoa. Finlandiarrak ez dira esparru honetan gehien inbertitzen dutenak, ezta denbora gehien eskaintzen dutenak ere. Beraz, nola da posible Finlandiak beti aurre eramatea heziketa-esparruan? Zein da arrakastaren sekretua?

Ez dago zalantzarik gure heziketa-sisteman zerbaitek huts egiten duela. Horren isla dira urte urte PISA nazioarteko ebaluazio-probetan lortutako emaitza patalak.

ALZOLA, Elaia. *Euskal jakintza*, 2013ko urria.  
Egokitua.

5.

**ARMAK BAINO, PORRUAK HAZI**

“Buruan gerra dutenentzat baino, kuartelaren lurrak erabilera sozialerako nahi ditugu: porruak ereiteko, hain zuzen”. Hala aldarrikatu dute —27. urtea dute aurtengoa— hainbat talde antimilitaristek eta internazionalistek Espainiako armadak Mungian duen kuartelaren aurrean, Soietxe auzoan.

Espainiako Estatua munduko zazpigarren arma esportatzailea izateaz gain, 16 gerratan parte hartzen ari dela gogorarazi dute eta beraz, horren eraginez, mundu-mailako errefuxiatu-krisiaren eragile zuzena ere badela. Egun, Espainiako 1.300 militar inguru dago Euskal Herrian, eta Europar Batasuneko lurralde militarizatuena bada ere, Arakako kuartelera 250 militar mugitzeko nahia azaldu du Espainiako Gobernuak.

LOPEZ, Axier. *Argia*, 2016ko azaroa  
Egokitua

6.

**HAURDUNALDI SOLIDARIOA?**

Gestazio subrogatuak kontraesanak sortzen ditu jendartean. Emakumeen gorputzaren askatasuna edo erabilera, legala edo ilegal, negozioa, elkartasuna... Arantza Campos irakasleak ikuspuntu feministatik hitz egin digu, “emakumeen eta beren eskubideen defentsan”.

“Ekintza honen arrazoi nagusia negozioa da, zeren, tartean dirurik ez badago, oso emakume gutxik —inork ere ez, ez esatearren— eskaintzen dute beren uteroa” dio Camposek. Dioenez, bizitzako beste hainbat esparrutan bezala, dirua duen eta dirua behar duen jendea dago eta, hortaz, finantza-interesek uteroen alokairua babesten dute: “Zenbat emakume aberatsek erdituko dute bitartekorik gabeko emakume txiroentzat? Hortaz, zer da haurdunaldi solidarioa? Gizon aberatsek emakume txiroak erosten dituzte; hori da errealitatea”.

MARIEZKURRENA, Ainhoa. *Argia*, 2017ko apirila.  
Egokitua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «BETI BIHARKO UZTEN DEN EZTABAIDA»

1.	B	2.	B	3.	B	4.	A		C
6.	C	7.	A	8.	C				

- **2. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «GIZAKIEN ETA ROBOTEN GIZARTE BATERANTZ»

Hutsuneak	9.	10.	11.	12.	13.	14.	15.	16.
Testu zatiak	I	F	C	H	E	B	D	G

Soberakoa	A
-----------	---

- **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «PROBINTZIAKERIA»

	A		A		B		B		C
	A		B		A		C		